

# Euskara sustatzeko eleaniztasuna: ikastolen kasua

(Promoting Basque through multilingualism: the case of  
the *Ikastolas*)

Elorza Alday, Itziar<sup>1</sup>; Muñoa Barredo, Inmaculada<sup>2</sup>  
Ikastolen Elkartea. Errotazar bidea, 124. 20018 Donostia  
ielorza@ehi.ikastola.net<sup>1</sup>; imunoa@ehi.ikastola.net<sup>2</sup>

BIBLID [1137-4446 (2010), 17; 39-66]

Jaso: 2009.12.28  
Onartu: 2010.05.17

---

*Artikulu honetan Ikastolek abian duten “euskaran ardaztutako eleaniztasuna”ren oinarriak eta emaitzak aurkeztu eta eskola eredu eleanitz horren garapean Ikastolek egin duten bidearen ondorioak nahiz etorkizunerako ildoak aipatuko ditugu.*

*Giltza-Hitzak: Euskara. Hizkuntz proiektua. Eleaniztasuna. Normalkuntza. Hizkuntzen irakaskuntza.*

*En este artículo presentaremos las bases y los resultados del “plurilingüismo articulado en torno al euskara”, puesto en marcha por las ikastolas, y mencionaremos las conclusiones del camino realizado por las ikastolas en el desarrollo de ese modelo escolar plurilingüe y las líneas a seguir cara al futuro.*

*Palabras Clave: Euskara. Proyecto lingüístico. Plurilingüismo. Normalización. Enseñanza de idiomas.*

*Cet article présente les fondements et les résultats du « plurilinguisme articulé autour de l'euskara », mis en œuvre par les ikastolas, ainsi que les conclusions du travail réalisé par les ikastolas pour le développement du modèle d'école plurilingüe, ainsi que les lignes directrices à suivre face l'avenir.*

*Mots-Clés : Euskara. Projet linguistique. Plurilinguisme. Normalisation. Enseignement des langues.*

## 1. SARRERA

XXI. mendearen lehen hamarkada hauetan, heziketa-lana tokian tokiko eta garaian garaiko testuinguruan ongi kokatu nahi duen eskolak bere planteamenduak eguneratu behar ditu, gizartean gertatzen ari diren aldaketa sakonei era eraginkorrean erantzun nahi badie.

Aldaketa horien artean, hizkuntzarekin zerikusia duten prozesuek berebiziko garrantzia hartzen dute ikastolontzat eta euskal eskolarentzat, oro har. Batetik, etorkizuneko euskal herritarrak globalizazioaren gizarte eleaniztunean bizitzeko prestatu behar ditugu, eta eleaniztasun hori euskararen indarberritzearekin uztartuz garatu behar da. Horrenbestez, euskararen eta euskalduntasunean ardaztutako hezkuntza eleaniztunerako ereduak garatu behar dugu.

Bestetik, etorkizuneko gizarte horri hobeto erantzuteko asmoz hezkuntza-kompetentzietan oinarritzen den hezkuntza-eredu berria dator eta Ikastola<sup>1</sup> taldeak beste gizarte-eragileekin batera garatutako Euskal Curriculumaren markoan ezarri ditu ardatzak. Hezkuntza-eredu berri horretan Hizkuntza prozesu-giltzarri bilakatu da, “Komunikatzen ikasi” kompetentziaren atal zabal bat hartzeaz gain, gainerako hezkuntza-kompetentziak garatzeko tresna garrantzitsuenetako bat da-eta.

Ikastolek euren sorreratik izan dute hizkuntza-gaiekiko kezka berezia. Ikastolak 1960ko hamarkadan sortu ziren euskaraz hitz egiten zuten haurrek ama hizkuntzan kalitatezko hezkuntza izan zezaten. Berehala, gaztelaniaz eta frantsesez mintzatzen ziren familiak ere beren haurrak ikastoletan matrikulatzen hasi ziren; hori dela-eta, ikastolak murgiltze programa bihurtu ziren eta gaztelaniaz nahiz frantsesez mintzatzen ziren haurrak euskalduntzeko helburua bere gain hartu zuten. Horrez gain, ikastolek euskal gizartean hizkuntza ordezkapena iraultzeko helburua zuten, eta, horretarako, gogotsu jardun zuten euskara eta euskarazko kultura jarduerak sustatzen eta sendotzen beren tokiko inguruneetan.

Hala ere, berehala ikusi zen ez zela batere erraza hizkuntzaren erabilera eskola testuingurutik harago hedatzea. Ikasleek maila ona lortzen zuten hizkuntza akademikoan, baina, hortik kanpo, hizkuntzaren erabilera ez zen orokortzen, ezta transferitzen ere, eskolako nahiz eskolatik kanpoko esparru informaletara. Horregatik, euskal gizartean, euskararen erabilerak ez zuen gora egin irakaskuntza sistemak –bereziki, ikastolek– euskalduntutako ikasleen kopuruaren proportzioan. Hutsune hori betetzeko asmoz, 1980an, Ikastolen Elkarteak “Euskaraz Bizi” programa sortu zuen, euskararen erabilera eremu

---

1. Ikastolak: Hezkuntza euskaraz ematen duten euskal eskolak dira (hizkuntza gutxituei eustea eta hizkuntza horietan murgiltzea dute helburu), euskara eta euskal kultura sustatzeko eta garatzeko asmoz. Elkarte batean antolatuta daude (Ikastolen Elkarteak), 100 eskola inguruk osatua. Elkarteak zerbitzu kolektiboak eskaintzen ditu; esaterako, kudeaketa eta administrazio zerbitzuak, ikasgai eta maila guztietarako euskarazko material didaktikoak argitaratzea, irakasleen trebakuntzarako ikastaroak, ebaluazio zerbitzuak, eta euskal kulturaren arlo jakin batzuk sustatzeko jarduerak (kirola, artea eta abar).

informaletan sustatzeko. Besteak beste, motibazio kanpainak, eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdirako jarduerak antolatu ziren programa horren baitan.

Urte batzuk geroago, 1990ean, ikastolek beren hizkuntza helburuak berrikusteko eta zabaltzeko beharra ikusi zuten, eta elebitasuna baino, eleaniztasuna bilakatu zen hizkuntza-helburu berria. Helburu horretara heltzeko, ikastoletan irakatsiriko hizkuntza guztien (hau da, euskara, gaztelania/frantsesa, ingelesa) beharrak eta gizarte egoera aztertu zituzten, eta, gero, curriculumaren diseinuan ekimen berriak abiarazi ziren. Ondorioz, “Eleanitz” proiektua sortu zen, euskara ardatz nagusitzat izango zuen ikastola eleaniztunaren eredua garatzeko. Honako hauek dira proiektu horren ezaugarri garrantzitsuenak:

- “Eredu integratzaile” bat garatu zen, jatorri kultural eta linguistiko ezberdinetako ikasleentzat, eta eredu horretan euskarari eusteko eta euskararen murgiltzeko programak landu ziren curriculum eta didaktika esparru bateratu batean, bertako hizkuntzen beharrian jakinetara moldatuta (Garagorri, 1995).
- Ikasle gehienen ama hizkuntza (L1) gaztelania izan arren, eskolan, bigarren hizkuntzatzat (L2) hartu zen, eta haurrak 8 urterekin hasten ziren hizkuntza hori irakasgai gisa ikasten. Euskararen curriculumarekin koordinatu zen, eta zenbait eduki modu osagarrian lantzen hasi ziren. Gaztelaniaren irakaskuntzaren helburua erregistro akademiko formalaren garapen zuzena bermatzea zen; hau da, eguneroko bizitzan lantzen ez diren erregistro akademiko eta formalen garapena.
- Haurrak 4 urterekin hasi ziren hirugarren hizkuntza (L3), kasu honean ingelesa, ikasten, batetik, adin goiztiar horretan hizkuntzak bereganatzeko erraztasunaz baliatzeko helburuarekin, eta bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren plangintzaren barruan ingelesa ikasteko ordu kopurua handitzeko, baina, betiere, euskararen nagusitasuna arriskuan jarri gabe. Ingelesa nazioarteko *lingua franca*tzat hartu zenez gero, ikuspegi instrumentala erabili zen hizkuntza hori lantzeko eta horretarako ikaskuntzako testuinguru funtzio naturalak erabili ziren. Hori dela-eta, Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratuaren (*CLIL, Content Language Integrated Learning*) ikuspegia onetsi zen, eta ez ziren kultura anglofonoko elementuak erabili ingelesa irakastean, Graddol-ek geroago (2006) deskribaturiko “ingeles global”aren ereduan proposatzen den antzera.

Bide horretan, eta globalizazioaren gizarteak nahiz kompetentzietan oinarritutako hezkuntzak dakartzaten hizkuntza-erronkei hobeto erantzun ahal izateko, 2000. urtean ikastola-sareak tresna berri baten beharra ikusi zuen; hain zuzen ere, ordura arte hizkuntzen inguruan sortutako proiektu guztiak uztartuko zituen tresna bat, eta hizkuntza guztien tratamenduari koherentzia emango ziona eskola barruko eremu askotarikoetan. Tresna horri *Hizkuntz Proiektua* deitu zitzaion, eta haren markoa garatzeko hainbat eremutako adituen talde teknikoa izendatu zen. Behin marko hori idatzita (*Ikastolen Hizkuntz Proiektua definitzen*, 2002) Ikastola bakoitzak bere Hizkuntz Proiektua garatu zezan egitasmo pilotua martxan jarri zen hainbat ikastolarekin: ingurune soziolinguistiko eta tamaina

desberdinetakoekin, eta hizkuntzak eskuratzeko edo erabilera indartzeko egitasmoetan eskarmentu desberdina zuten ikastolekin. Urtez urte egitasmoarekin bat egiten joan dira ikastolak, eta 2009an 64 ikastolako taldea izatera iritsi da. Ibilbide horren ondorioak, 2009ko otsailean argitaratutako *Ikastolen Hizkuntz Proiektua* liburuan bildu dira (EHIK, 2009).

Artikulu honetan, 90eko hamarkadatik aurrera Ikastolen Elkartea garatzen eta bultzatzen ari den euskararen ardaztutako eleaniztasunerako Hizkuntz Proiektua zertan datzan azaltzeaz gain, euskararen ardaztutako eleaniztasuna bideragarria dela iradokitzen duten hainbat datu aurkeztuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin euskal hezkuntzak hizkuntzekiko dituen erronka nagusiak aipatuko ditugu. Jarraian, 2. eta 3. ataletan, Ikastolen Elkartek proposatzen duen Hizkuntz Proiektu eleanitzaren oinarri teorikoak aurkeztu eta hizkuntzekiko esku-hartze eremu nagusiak deskribatuko ditugu. Amaitzeko, 4. eta 5. ataletan, Ikastolek eremu pedagogikoan nahiz instituzionalean abian dituzten hainbat proiektuetatik ateratako ondorioak nahiz etorkizunerako ildoak azpimarratuko ditugu.

## **1.1. Euskal hezkuntzaren hizkuntzekiko erronka nagusiak**

Globalizazioaren nahiz hezkuntza-eredu berrien ondorioz euskal hezkuntzak hizkuntzekiko dituen erronkak ez dira makalak. Eskolak egungo gizarteak eskatzen duen goi mailako hizkuntz kompetentzia eleaniztuna garatzen lagundu beharko du, betiere euskararen biziberritze-prozesuari lagunduz eta euskal kulturaren sustapena bermatuz. Jarraian, erronka horietako batzuk aipatuko ditugu.

### **1.1.1. Hezkuntza eredu berriaren hizkuntz eskakizunei erantzutea**

Ezagutzaren eta globalizazioaren gizarteak dituen eskakizunei erantzuteko hezkuntza eredu berri bat garatu beharra dago, pertsona bere dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez trebatuko duena. Hezkuntza eredu berri horren xedea izango da pertsonak gizartean partaidetza aktiboa edukitzeko eta bizitzako beharren aurrean era eraginkorrean ekiteko beharrezkoak diren kompetentziak gara ditzaten lortzea.

Azken batean, pertsona kompetenteak (hau da, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez jarduteko gai diren pertsonak) hezteko izango da helburua, eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarre-  
rak era egokian hautatu eta erabili beharko ditu eskolak.

Kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi berriaren ondorioz, hizkuntzek inoiz baino garrantzi handiagoa dute eskolan, hizkuntza baita, azken batean, giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Hezkuntzak, beraz, euskal ikasleen orain-go zein etorkizuneko egoera pertsonalari, akademikoari eta profesionalari begira aurreikus daitezkeen hizkuntz premiei erantzun beharko die.

### 1.1.2. Eskolako komunikazio-inguruaren kalitatea hobetzea

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren baitan, hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzaren xedea honakoa izango dugu: ikasleen komunikazio-kompetentzia garatzea, hizkuntza erabil dezaten bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa (Garagorri, 2004).

Horrenbestez, hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzak eskolako eremu guztiek partekatutako prozesua izan beharko du; izan ere, eskola-giroan (gela barruan, gelatik kanpo...) sortzen den komunikazio-egoera bakoitzak bere ekarpena egingo dio ikaslearen komunikazio-kompetentzia orokorrari eta egoera guztietan eragin beharko dugu hura garatu ahal izateko. Bestela esanda, eremu horietako bakoitzean sortzen den komunikazio-egoera bakoitzak bere ezaugarri linguistikoak izango ditu: batzuk formalak izango dira eta hizkuntza erregistro formala erabilera eskatuko dute; beste batzuk, berriz, ez-formalak izango dira eta erregistro ez-formalen erabilera eskatuko dute.

Hala izanik, eskolaren erronka izango da bere inguruan gertatzen diren komunikazio-egoerak identifikatzea, eta horiek hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzarako baliatu ahal izateko bidea egitea. Bide horretan garrantzi handikoak izango dira hainbat urrats; besteak beste, irakaskuntzarako metodologiak eguneratzea eta gelaz kanpoko ekintzak hizkuntzaren ikuspegitik berraztertzea. Horrela, ikasleek ahalik eta egoera gehienetan aritzeko komunikazio-kompetentzia garatu ahal izango dute.

### 1.1.3. Euskararen biziberritzea

Dagoeneko aipatu dugun moduan, euskal hezkuntzaren ezaugarrietako bat da hizkuntza gutxituaren biziberritzearen eragile izatea. Hezkuntzak bi funtzio nagusi bete izan ditu euskararen biziberritzean, azken berrogeita hamar urteotako ibilbidean ondo erakutsi duen gisan: batetik, funtzio kontserbatzailea, hau da, gizarte jakin batek metatu duen kultur ondare hautatua belaunaldi batetik bestera igarotzen ahalegintzea; bestetik, funtzio berritzailea, hots, gizarteak dituen aldaketa beharrei eta eskaera berriei erantzuteko trebatzea.

Eskolak funtzio horiek benetan bete behar baditu, ordea, eta hizkuntzaren eragile birsortzaile sozial gisan eragin behar badu, ezin du bere eginkizuna hizkuntzaren irakaspen akademikora mugatu:

In all cases (with the possible exception of academic linguists) languages are not their own rewards. If they remain functionally locked away in the schools, they may be learned (youngsters have an amazing ability and capacity to learn “useless” matters which they never need again, once their schooling is over), but they will not accomplish the wonderful goals of communication with neighbours far and near, improvement of commerce and diplomacy, attainment of social mobility, and familiarity with the brightest stars of world literature –and much, much less yet will they accomplish RLS –unless they are linked to “real life” stages before, during and after school. The RLS school must keep reality firmly in mind. Schools tend to be compartmentalising institutions ... it is very easy for them to become sheltered

workshops, a world apart and unto themselves. When that happens, they effectively cease to contribute to the RLS process (Fishman, 2001; 471. or.).

Fishmanen hitzei jarraiki, gizartean txertatutako eskola, hezkuntza-eredu berriari begira jarritako eskola beharko dugu, eremu akademiko hutsaz gain beste eragin esparru batzuk ere bere gain hartuko dituen. J. I. Etxezarretak honela adierazten du:

Eskola pertsonen gizarteratze, komunikazio, harreman eta elkarbizitzaren gune funtsezkoenatarikoa da, ume eta gazteei dagokienean, familiek eskatzen eta ematen zaizkien zerbitzuei dagokienean, guraso eta irakasleen arteko harremanei dagokienean, ikastola edo eskola eta ingurune sozial eta instituzionalaren arteko interakzioari dagokienean gurasoen euskalduntze, guraso prestakuntza eta eskola kudeatzaile formazioari dagokienean, herri arteko ikastola edo eskola arteko sareari dagokienean ... osagai hauek guztiak eskolaren jarduna dira, pertsonen bizitza akademikora mugatzen ez direnak, alegia. Euskararen biziberritzearen ardatz den erabilera sustatu nahi duenak horiek guztiak kontua hartu eta badu zer egina, alajaina (Etxezarreta, 2008; 91. or.).

Euskararen biziberritze-prozesuan eragile izan nahi duen eskolak, beraz, ondo ustiatu beharko ditu berezko komunikazio-testuinguru zabalak eta hezkuntza-komunitate osoak eskaintako aukerak. Horrekin batera, harreman estuak eta eraginkorrak izan beharko ditu inguruan duen gizartearekin, eta ikuspegi sistemiko zabal hori era sistematikoan eta koherentean bideratzeko plangintzak garatu beharko dira.

#### **1.1.4. Euskal kulturaren biziberritzea**

Hizkuntzak, ordea, ez dira pertsonen artean ideiak, nahiak eta esperientziak trukatzeko bitarteko soilak. Horrez gain, hizkuntza da kultura batean errotutako produktua eta kultura horren transmisorea eta, beraz, komunitatearen identitatearen euskarri gertatzen da. Gizabanakook gure hizkuntzaren bidez ikusten dugu inguruko mundua; hizkuntza baten jabe izatea hizkuntza horrek bideratutako kultura barneratzea ere bada.

Euskara hartzen dugu gure kultur ondarearen oinarritzko adierazle eta sortzailatzat; hizkuntzaren jabe izateak euskaldun izatearen kontzientzia bideratzen du. Era berean, hizkuntzarekiko –euskararekiko– atxikimendua errotuko da kultur esparru guztietan garatutako jardueretan, kulturak eta hizkuntzak banaezineko sistema osatzen baitute. Horrenbestez, euskararen biziberritzeak euskal kulturaren biziberritzearekin uztartuta gertatu beharko du ezinbestean, euskal kultura euskaldunok errealtatea ulertzeko dugun modu gisan ulertuta (Garagorri, 2004). Bestalde, beste hizkuntza batzuk eskuratzen diren heinean, kultur aniztasunaren eta kulturartekotasunaren oinarriak jartzen dira, eta elkarbizitzarako ezinbestekoa den elkar ulertzeari eta errespetuari bide ematen zaie.

Euskal hezkuntzak, beraz, bi eginkizun horiek uztartu beharko ditu: euskara helduleku duen euskal kulturaren transmisioa eta biziberritzea ziurtatu beharko

du lehenik, eta, horrekin batera, egungo gizarteak eskatzen dituen kultur eza-gutza unibertsalen lanketa ziurtatu beharko du, aipaturiko elkarbizitza hori erdiesteko bideak urratuz.

### **1.1.5. Kultur aniztasunari eta hizkuntz aniztasunari erantzutea**

Globalizazioaren ondorioz gero eta errazagoa da pertsonen mugikortasuna, eta gero eta handiagoa, beraz, kultur aniztasuna nahiz eleaniztasuna kudeatzeko beharra. Batetik, euskal herritarrok atzerrian mugitzeko gaitasuna garatu beharko dugu; bestetik, gai izan beharko dugu atzerriko kulturak eta hizkuntzak gure artean kokatzeko. Azken horri dagokionez, jatorri aniztetako etorkinen kopurua gora doa gure gizartean, eta aniztasun hori nabaria da gela barruan ere.

Hezkuntzak, beraz, ikasle horien integrazioarako bideak ezarri beharko ditu. Alde batetik, ikasle horiek euskal gizartean bizi ahal izateko behar duten hizkuntz nahiz kultur konpetentzia garatzen lagundu beharko du; bestalde, eta bereziki euskararen nahiz euskal kulturaren sustapenean aurrera egingo badugu, ezinbestekoa izango zaigu ikasle horiek euskararen eta euskal kulturaren aldera lerratzea, beti ere euren jatorrizko kultura eta hizkuntza baztertu edo gutxietsi gabe.

## **1.2. Hizkuntz Proiektuaren beharra**

Orokorrean, beraz, hizkuntzaren trataera dela-eta euskal eskolak bere gain dituen erronkak handiak dira: XXI. mendeko gizarte berriari erantzunez euskarari eta euskal kulturari erantzun osoa ematea, inguruko beste bi edo hiru hizkuntza indartsuen irakaskuntza duina ziurtatzea, eta, azkenik, jatorri ezberdineko ikasleek kultur eta hizkuntz ezaugarriei trataera egokia ematea.

Erronka horiei aurre egiteko, eskolak bere lan-esparruak eta funtzioak berrikusi eta marko berri bat eraiki beharko du. Marko horrek eskola-bizitzako komunikazio-esparru guztiak hartu beharko ditu, bai eta esparru horietako eragile guztien inplikazioa eta lankidetzat bultzatu ere. Besteak beste, honako lan-gai hauei erantzun beharko die markoak:

- Egoera soziolinguistikoa eta hizkuntzekiko helburuak kontuan hartuz, eskolako hizkuntza guztien plangintza eraginkorra egin beharko da; era berean, haien ikaskuntza-irakaskuntzaren lanketa bateratua eta koherentea ziurtatu beharko da. Horretarako, eskolaren barruan hizkuntza bakoitzak izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definitu beharko dira; ondorioz, bakoitzari eskainiko zaion denbora eta irakaste-bideak zehaztu beharko dira.
- Eskolaren baitako komunikazio-egoera askotarikoak identifikatuz (eremu pedagogikoan nahiz instituzionalean), haien ezaugarriak aztertuz, eta hezkuntza komunitate osoaren partaidetza bilatuz, estrategia zehatzak definitu beharko dira egoera horiek ustiatzeko.

- Harreman estuak eta eraginkorrak garatu beharko ditu inguruan duen gizartearekin, horretarako, plangintza sistematiko eta koherenteak zehaztuz.

Hizkuntz Proiektua izango da eskolak ezinbestean beharrezkoa duen marko zabal eta alde askotariko hori. Lan-tresna integrala izan beharko du, Ikastolaren komunikazio-testuinguru osoan (ikaskuntza-irakaskuntzan, eskola-komunitatearen harremanetan, eta Ikastola txertatuta dagoen gizarte hurbilekiko harremanetan) eragingo duena. Bestela esanda, Hizkuntz Proiektua ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa izango da.

Jarraian Ikastolek hizkuntzekiko nahiz hezkuntzarekiko duten ikuspegia aipatu dugu; izan ere, horiek baldintzatuko dituzte Hizkuntza Proiektuaren baitan landuko diren eremuak eta abian jarriko diren ekimenak.

## **2. IKASTOLEN HIZKUNTZ PROIEKTU ELEANIZTUNA: OINARRI TEORIKOAK**

### **2.1. Hizkuntz eta kultur politikaren oinarriak**

#### **2.1.1. Eskolaren zeregina euskara indarberitzeko prozesuan**

Bi hitzetan laburbil daiteke euskararen egoera soziologikoa: normalizazio sozialaren eta hizkuntz normalizazio bikoitzaren beharra du euskarak. Normalizazio soziala, euskaldunok gutxiengoa osatzen dugulako Euskal Herrian; hizkuntz normalizazio bikoitza, garabidean delako bai erabileraren aldetik (oraindik berria zenbait gizarte-esparrutan), bai corpusaren aldetik (egiten ari da esparru batzuetako lexikoa, eratzen sintaxia...). Hala, bada, motibazio eta ahalgin handiagoa eskatzen zaigu egoera horretan euskara eta euskaraz ikasi eta irakatsi behar dugunoi; teoriarik bete beharko genituzkeen funtzioetatik harago joatea eskatzen du, hau da, hizkuntz normalizatzaile ere izatea; normalizatzaile sozial eta linguistiko izatea, alegia.

Euskararen normalkuntza-prozesu luze eta konplexu horretan gizarte-eragile guztien partaidetza nahitaezkoa bada ere, “eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarritzkoenetakoa” (EHIE, 1991, 27. or.).

Erantzukizun hori bere egingo duen eskolak, helburu hori plangintza integrala eta estrategikoa indarrean jarriz lortuko du eta ez ekinga bakartuen bidez. Plangintza horrek ondorengo esparruak landu beharko lituzke (Aldasoro et al., 2002): euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren indartzea; etorkinak integratzeko berriazko bideen asmatzea; euskararen kalitatearen zainketa eta eredu egokien irakaskuntza; euskararen erabileraren elikatzea; eta azkenik, euskara eta euskal kultura ardatz izanik, kultur aniztasunari eta eleaniztasunari erantzuteko planteamenduen indartzea eta hedatzea.

Zeregin horiek betetzeko lehen baldintza litzateke euskararen biziraupena hezkuntza-komunitate osoaren arduratzat hartzea. Hartara, ezinbestekoa da



eskola-eremu guztietako eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea eta, horretarako, lan iraunkor, kohesionatu eta sistematizatu ahalbidetuko duen egituraketa finkatu behar da. Inguruabar horretan, eskolan hizkuntzekiko egon litezkeen esku-hartze eremuak kontuan izanik, bakoitzean eragile d(ir)ena(k) edota bilaka lite(z)keena(k) ongi identifikatu eta lehenetsi behar dira plangintza eraginkorra abian jarri ahal izateko.

Horrekin batera, ikastolak hizkuntz politika eraginkorra bideratu beharko du ingurune hurbila kontuan hartuz.

[...] guk euskararen geroa, geure baitarik, ezin dugu ziurtatu besterik gabe. Horretarako, gizartearen laguntza eta berarekin aritzea behar-beharrezkoak ditugu. (Osa, 2004).

Bide horretatik, alegia, gelaz kanpoko eremua nahiz eremu instituzionala eskola-esparru gisa begiztatuz, lor dezakegu astiro-astiro hizkuntza gutxitua-erikiko atxikimendua sendotzea eta, ondorioz, haren erabilera aurrerapenak nabaritzea. Horrela, eskolak bestelako gizarte-eragileengan zein askotariko instituzioengan ere eragin beharko du, haiekin lankidetzan jarduteaz gain.

Eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarritzkoenetakoa. Bere eginkizuna, ordea, erlazionatuta egongo da euskal gizarteko beste sektore guztiekin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango baita euskalduntzearen bultzatzailea. Baina, aldi berean, gizarteak bere egoera egokitzen joan behar du hizkuntza errealitatera, bai gaurkora eta bai etorkizun hurbilekora. Administrazioa eta gizartea, orokorki, ezin dira mugatu gaurko eskaerari erantzuna ematera, planifikatu egin behar dute eta baldintza egokiak sortu gaur eskoletan euskalduntzen ari diren haurrek, bizitza sozialeko edozein esparrutan, beren ahalmenak euskaraz garatu ahal izan dezaten biharko egunean (EHIE, 1991; 27. or.).

Laburtuz, ikastolon xedea, bizitzako zeregin askotarikoetarako kalitatezko euskara irakasteaz gain, gizartean eragitea ere bada, eta baita euskararen sustatzaile izatea, hitzun euskaldunon komunitatea sendotzea, eta erabilera-eremuak irabaztea ere.

### **2.1.2. Hizkuntza eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne-hartzailea**

Globalizazioaren gizarteak erronka berriak ezartzen dizkio euskararen eta euskal kulturaren biziberritze-prozesuari. Desegokia litzateke prozesu hori kultur eta hizkuntz testuinguru zabal horretatik at planteatzea. Aitzitik, euskara eta euskal kultura gaur egungo gizartearen aniztasunean parte izanik, elkarbitzarako ardatz bezala garatu nahiko genuke.

Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna emateko garaian, ikastolok “kultur integrazio barne-hartzailearen” hautua egin dugu; honela deskribatzen da Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren oinarrietan:

Elkarbizitza hori erdiesteko kultur integrazio barne-hartzailearen bidea proposatzen dugu; hau da, batasuna eta aniztasuna uztartzen dituen bidea. Batasuna, Euskal Herrian elkarrekin bizi garen kultur talde guztien ondare komuntzat euskara eta euskal kultura hartuta, zabala eta etengabe berritzen dena; eta aniztasuna, kulturartekotasunaren bidetik, talde bakoitzaren nortasuna errespetatzeko, ezagutzeko eta balioesteko. Oinarrizko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrazlea. Euskararen eta euskal kulturaren inguruan egituratutako erreferentzia komun eta partekatua berruz, pertsona bakoitzak eraiki behar du bere identitate propioa, indibidualizazio prozesu baten bidez, eta, prozesu horretan, hainbat identitate aukeren artean bakoitzak finkatuko ditu bere lehentasunak, baina guztiok konpartituko ditugu euskararen eta euskal kulturaren erreferentziak (A. A., 2008, 18. or.).

Ikuspegi horren baitan ez dago etorkinik edo atzerritarrik, ez dago “desberdinik”. Ikasle bakoitzak bere ezaugarriak dauzka eta eskolak hartzen dituen diren bezala, “ikasle estandarren” irudi hipotetikoarekin konparatu gabe. Familia atzerritarra edukitzea “aniztasuna” da, hainbaten artean (generoa, klase soziala, gaitasunak, interesak, ikas-estiloak eta abar). Eredu inklusiboak etorkinen seme-alabei “identitate anitza” garatzeko aukera eskaini behar die. Horrek esan nahi du hemengo sentitzen lagundu behar diela. Ez da eskolaren arduraren familiaren jatorrizko identitatea eraikitzea, baina bai eraikitze horri eskolan lekua egitea eta modu positiboan balioestea. Horrenbestez, euskara haiena ere bada, euskara haien kultur ondarea da.

Hala, eskola barne-hartzaileak ateak irekitzen dizkio hizkuntza eta kultur aniztasunari, aniztasunaren erronka era baikorrean ikusiz; aukera berri gisa ikusten da gure kultura eta hizkuntza biziberritu dadin, modu horretan euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak irabaziz. Eskola barne-hartzailea, beraz, euskara eta euskal kulturarentzat abagunea da; euskarak biziraun nahi badu, isolamendutik gaindi beste hizkuntzekin eta kulturekin bizi beharko du, mestizaian; izan ere, Fishmanen esanak gogoratu, ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bat bera bakarrik mantentzea eta indarberitzea. Eskola barne-hartzailearen ikuspegitik, euskarak integartzeko tresna izan behar du, eta ez baztertzailerik. Izan ere, euskara aukera berdintasuna lortzeko bidea izango da, gure kultur aberastasuna ezagutzeko bitartekoa, berdinekin hartu-emanak izateko tresna, gizarte-integratzaileko zubia, baita inguru erdaldunetan ere. Horretarako, euskara eta euskal kultura maitatzen erakutsi behar zaie etorri berriei, jarrera baikorra eta atxikimendua bereganatu dituztenak.

Alabaina, hori ezingo genuke egin eurek dakartena arbuiautz. Aitzitik, ele-aniztasun prozesua aberastu egiten da ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzari keinuak eginez; jatorrizko hizkuntzari eskola-giroan espazioa aitortzeak hizkuntza berria ikasteko jarrera baikorra sustatzen du:

El bilingüismo aditivo, aquel que suma en lugar de restar en la experiencia emocional e intelectual del alumno, parte del reconocimiento, aprecio y valoración positiva de su lengua y de su bagaje cultural. Es preciso potenciar que cultive su primera lengua, como modo de asegurarse un firme apoyo para su aprendizaje de la segunda. Insistir en el desarrollo de las habilidades lingüísticas más amplias en primera lengua contribuye a la mejora de su autoimagen y a la transferencia de

habilidades a su segunda lengua, la lengua que aprende en la escuela (Ruiz Bikandi eta Miret Bernal, 2000).

Laburbilduz, kultura eta hizkuntza aniztun ikasleak ikastolan partaide izatearen aldeko gara eta egoera hori gure hezkuntza-eredua gizarte berrira egokitzeko *irtenbidearen* parte modura ikusi nahi dugu, eta ez konpondu beharreko arazo modura, Cummins-en ikuspuntuarekin bat etorritz:

In short, the cultural, linguistic and intellectual capital of our societies will increase dramatically when we stop seeing culturally and linguistically diverse children as “a problem to be solved” and instead open our eyes to the linguistic, cultural, and intellectual resources they bring from their homes to our schools and societies (Cummins, 2008, 5. or.).

## 2.2. Hezkuntzari buruzko ikuspegia

Ikastolen hizkuntza irakaskuntzaren politika hezkuntzaren ikuspegi orokor-rago batekin batera garatu da, non hizkuntzak ikastea umearen garapen orokorraren zatizat jotzen baita: “intimately linked with, constrained by and a contributor to cognitive and social development” (Genesee, 1994; 4). Gure hezkuntza marko orokorrak ere ikaskuntzaren teoria konstruktibistan ditu oinarriak (Piaget, 1937, 1945, 1970, Piaget & Inhelder, 1975), eta, bereziki, Vygotsky-ren (1973) eta Bruner-en (1983, 1984, 1986) “interakzionismo sozialetik” abiatuta garatu da. Teoria horren arabera, elkarreragin soziala da haur gaztearen garapenaren elementu nagusia. Ondorioz, gure hezkuntza proposamenen xedea zera da: metodologia berri bat garatzea, irakaskuntzaren erdigunean ikaslea jarriko duena eta ezagutza gizartean eraikitzeko mesedegaria izango dena.

Ikuspegi horrek berez bilakatzen du hizkuntza gizabanakoaren garapen pertsonalaren, kulturalaren eta sozialaren ardatz; hori dela-eta, pentsamendu eskola horretako egileek garrantzi handia eman diote hizkuntzaren garapenari. Egile horien aurkikuntzak iturri garrantzitsua izan dira hizkuntza metodologiarako, hizkuntza bereganatzeko lehenengo pausotako Bruner-en “formatu” kontzeptutik hasita, (Bruner, 1983; 10). Kontzeptu horretatik abiatuta sortu ditugu gazteenei bigarren hizkuntzak irakasteko proposamenak.

Egungo kompetentzien inguruko hausnarketa berriarekin, beste dimentsio bat gehitzen zaio ikuspegi horri, hau da, gizarte-eraikuntza hori gertatzen den testuinguruarena, giza egoerarena. Aprestuzia, hortaz, hiru dimentsiotan gartuko litzateke: maila indibidualean, ezagutza berriaren eta ikaslearen aurrezagutzaren arteko interakzioan; maila sozialean, irakasleekin eta ikaskideekin sortutako interakzioan; eta, azkenik, prestuzia hori gertatzen den testuinguruarekin interakzioan, bizi dituen egoerek ezarritako baldintzei erantzunez.

Un apprentissage scolaire est un processus dynamique par lequel un apprenant, à travers une série d'échanges avec ses pairs et l'enseignant, met en interaction ses connaissances avec des savoirs dans l'objectif de créer de nouvelles

connaissances adaptées aux contraintes et aux ressources de la situation à laquelle il est actuellement confronté dans l'objectif d'utiliser ses nouvelles connaissances dans des situations non didactiques (Jonnaert et Vander Borgh, 1999; 266. or.).

Horrenbestez, hizkuntzaren lanketa egokia, beraz, Hizkuntz Proiektua, lehentasunezko premia bilakatzen du ikuspegi berri horrek; alegia, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren muinean interakzioa eta harreman sozialak (pertsonekin zein ingurunearekin) jartzen eta testuinguruaren eta egoeraren garrantzia azpimarratzen dituen ikuspegi horrek.

## **2.3. Hizkuntzaren eta eleaniztasunaren ikuspegia**

### **2.3.1. Hizkuntzaren ikuspegia**

Logikoki, ikuspegi horren ondorioz, ikastolek hizkuntzaren ikuspuntu komunikatiboa eta diskurtsiboa hautatu dute. Ikuspuntu horretan, komunikazio jarduerak bere osotasunean hartzen dira eta hizkuntzari ez zaio ikuspegi linguistikotik soilik erreparatzen, hizkuntza gizarte eta komunikazio irizpide zabalagoak erabiliz ulertu behar den praktika sozial gisa ulertzen da-eta. Hizkuntzen ikuspegi integratuago horretarako, diziplinarteko ikuspuntua behar da, eta hizkuntzalaritza aplikatua gune-gunean kokatzea. Diziplina horren emaitzak eta ondorioak oso interesgarriak dira hezitzaileentzat. Bronckart-en (1985) esanetan, hezitzaileek askatasun osoa izan behar lukete, ikuspegi guztietatik beren irakaskuntza helburuetara ongien egokitzen diren elementuak hautatzeko. Ildo horri jarraituz, honakoak izan dira, besteak beste, gure Hizkuntza Proiektuaren atalak lantzeko informazio iturri aberasgarrienak: komunikazioaren teoriak, diskurtsuaren hizkuntzalaritza, soziolinguistika, psikolinguistika, elebitasunaren eta eleaniztasunaren ikerketa sozio-psikopedagogikoa, hizkuntza pedagogia, eta ingelesaren glotodidaktika.

Hizkuntzaren komunikazio ikuspegiarekiko jarrera eklektiko horren barruan, Bronckartek eta bestek (1997) proposatutako interakzionismo sozio-diskurtsiboaren pentsamendu ildo nagusian oinarritzen da ikastolen hizkuntza garapenari buruzko ikuspegia. Pentsamendu ildo hori dela-eta, "Testuaren Pedagogia" deritzona garatu dute Genevako Unibertsitatean. Testuaren pedagogian, testu generoak dira hizkuntza curriculumaren oinarria; hain zuzen ere, ikasleek beren gizarte ingurunean egiten dituzten ekintzetan eta izaten dituzten elkarreraginetan sortutako hizkuntza ekintzen produktu linguistikoak. Ikuspegi horrentzat, hizkuntza irakaskuntzaren helburu nagusia hau litzateke: "ikasleak berezkoak dituen gizarte inguruneetan hainbat testu mota eta komunikazio elkarreraginak erabil ditzakeela, egoki eta eraginkor" (van Dijk, 1981; 19).

### **2.3.2. Eleaniztasuna eta hezkuntza eleaniztuna**

Ikuspegi sozio-diskurtsibo hori dela-eta, ikastolek albora utzi dute elebitasunaren ideal abstraktuaren hasierako ikuspuntua, zeinaren helburua bi hizkuntzak guztiz ondo jakitea baitzen. Orain, elebitasuna (eta eleaniztasuna)

hiztunen beharrizan komunikatiboak islatzen dituen prozesu dinamikotzat hartzen da. Herdina-k eta Jessner-ek (2002) proposatutako Eleaniztasunaren Eredu Dinamikoak islatzen du ongien gure jarrera, kontuan hartzen baitu egoera soziokulturelek hizkuntzaren erabileran eta garapenean eragin handia dutela.

Hizkuntza gutxituen eremuan argi dago “alderdi soziokultural” horiek lotuta daudela hizkuntza ordezkapena iraultzearekin eta hizkuntzaren normalizazioa lortzearekin. Egoera horretan, eskolak funtsezko eginkizuna du, hizkuntza gutxitua erabiltzeko komunikazio behar errealek sortzen dituen inguru soziala bermatzeko garaian. Ondorioz, ikastolek hezkuntza sistema eleaniztunarentzako proposamena landu dute, hizkuntza gutxitua ardatz nagusi dela. Beste era batera esanda, hizkuntzak irakasteko orduan XXI. mendeko euskal biztanleek hizkuntza bakoitzean behar duten maila egokia lor dezaten da helburua, betiere euskararen nagusitasunari eutsiz erabilera eremu guztietan.

### **3. IKASTOLEN HIZKUNTZ PROIEKTU ELEANIZTUNAREN MARKOA: HIZKUNTZEKIKO ESKU-HARTZE EREMUAK**


Hizkuntzaren ikuspegi holistiko horri jarraiki, hezkuntza sistema osoa eta eskola komunitate osoa ikaslearen garapen linguistikoaren partaidetzat hartu dituzte ikastolek. Hori dela-eta, Hizkuntza Proiektu Eleaniztuna garatzeko beharrezkoa izan da ikastola barruan dauden “esku-hartze eremu” guztiak aztertzea eta deskribatzea. Eremu horietako bakoitzak hainbat komunikazio egoera hartzen ditu bere barnean; hala nola, egoera akademiko formalak, taldekideen arteko egoera informalek edota eskolaren eta bere gizarte ingurunearen arteko harreman instituzional formalak. Zehaztutako eremu bakoitzak ezaugarri sozio-linguistiko jakinak ditu eta esku-hartze linguistikorako hainbat arlo zabaltzen ditu. Horregatik, esku-hartze horrek, hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan eragiteaz gain, hizkuntza horien erabileran (gela barruan, gelaz kanpo nahiz eskola erakunde bizitzan) eta eskolaren inguru sozialean hizkuntza gutxitua sustatzeko hartzen diren eskola erabakietan ere eragiten du. Gure iritziz, horren ikuspegi globala eta zabala izateak izugarriko abantailak dakartza, hizkuntza gutxituen garapena oztopatu beharrean sustatzen laguntzen duten egitasmo eleaniztunak gauzatzekoan.

Jarraian, Ikastolen Hizkuntz Proiektua garatzeko kontuan hartu diren esku-hartze eremuak azalduko ditugu. 1. irudian ikus daitekeen bezala, bi eremu nagusitan sailkatu ditugu esku-hartze eremu horiek:

Eremu pedagogikoa: Atal honen barruan, hizkuntzaren garapenean eragina duten irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuez gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere biltzen dira.

Eremu instituzionala: Atal honen barruan aurkeztzen diren alderdiak ikastolaren eraketarekin eta gizarte-harremanekin lotuta daude, eta ikastolan nahiz ikastolatik kanpo hizkuntza gutxituaren erabilera sustatzeko eta babesteko helburua dute.

### 1. irudia. Hizkuntzekiko esku-hartze eremuak



Halaber, eremu pedagogikoa bi azpi-eremutan bana daiteke: gela barrukoa eta gelaz kanpokoa.

Gela barruko eremuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jasotzen ditu eta bi azpi-eremu biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, kudeaketa pedagogikoaren atala, hizkuntzen curriculum bateratua helburu duten erabakiak eta gainerako arloetako hizkuntza beharrei erantzuten diotenak biltzen dituena.

Beste aldetik, arlo guztiak besarkatzen dituen interakzio didaktikoaren esparruari ere begiratuko dio eremu honek; gela barruko harreman-sareen hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bideratutako komunikazioa ahalik eta aberatsena eta eraginkorra egitea du helburu esparru horrek. Horrekin batera, lan-ildo horiek aurrera eramateko irakaslearen beharrezko prestakuntza eta baliabideak jasotzen dira hemen; hala nola, hizkuntzaren hobekuntza, metodologia eta didaktika, eta hizkuntzekiko jarrerak.

Gelaz kanpoko eremuak irakasle, hezitzaile nahiz begiraleekin bideratzen den gelaz kanpoko jarduna du helduleku. Ikastolaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz eta hizkuntza bakoitzean ezarritako azken helburuen arabera beste hizkuntza batzuk erabil badaitezke ere, eremu hori hizkuntza gutxituaren, euskararen, sustapenera begira legoke bereziki. Eremu horretan ikaslearen bizitzaren esparru ez-formaletan eragin nahi da, eta bitartekoak jarri nahi dira esparru horietan ohiko komunikazio-hizkuntza euskara –kalitatezko euskara– izan dadin. Hortaz, gelaz kanpoko egoeretan bideratutako komunikazioaren kalitatea aztertuko da, hura aberasteko metodologia eta estrategiak landuko dira,

eta horiek aurrera eramateko beharrezko hezitzaile-begiraleen prestakuntza zein baliabideak zehaztuko dira.

Eremu instituzionala ikastolako hizkuntz politikari dagokiona da. Bi azpi-eremu biltzen ditu honek ere: eraketa eta barne-komunikazioa eta kanpo-harremanak.

Eraketa eta barne-komunikazioaren atalean, ikastolaren testuingurua ahalik eta euskaldunena egiteko beharrezkoa den hizkuntz kudeaketari dagokion erabaki nagusiak biltzen dira. Hartara, hizkuntz paisaia zaintzeko irizpideak ezarri eta haien jarraipena ziurtatzeaz gain, estrategiak zehaztuko dira eremu horri dagokion hezkuntza-komunitatearen harreman-sareetan euskararen erabilera eragozten duten etenak identifikatzeko eta gainditzeko. Harreman-sare horiek bitan banatu dira, ikastetxea eta familia, bakoitzean berariaz eragin ahal izateko.

Kanpo-harremanen atalean jasotzen dira ikastolak euskara sustatzeko inguruko gizartearekin elkarlanean sortu beharreko loturak eta bultzatu beharreko konpromisoak.

Eremu eta azpi-eremu horietan guztietan esku hartzeko aukera egon behar luke, lagungarriak dira-eta ikasleentzat, eguneroko bizitzan hizkuntza tresna gisa eraginkortasunez erabiltzeko behar duten komunikazio kompetentzia garatzeko. Hizkuntza gutxituentzat, gelaz kanpoko eremuak eta eremu instituzionalak oso garrantzitsuak dira, eremu horiek eragin zuzena baitute hizkuntza gutxituaren erabilera bermatzeko gizarte espazioak (eskolatik kanpo) sortu eta sustatzerakoan. Gela barruko eremuari dagokionez, hizkuntza gutxituan irakasten duten eskolek arreta handiz jokatu behar dute eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak sortzen dituen komunikaziorako abaguneak ahalik eta hobekien ustiatzen dituzten hezkuntza metodologia orokorrak erabili beharko dituzte. Horrez gain eta hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, beharrezkoa izango da ikasgelan eta eskolan komunikazioa nahiz hizkuntzaren erabilera sustatzen duten metodologiak erabiltzea; izan ere, maiz askotan hizkuntza gutxituak ikasleek eguneroko bizitzan duen presentzia txikiegia da ikasleek hizkuntza horretan garapen linguistiko egokia lortu ahal izateko.

Sortu zenetik, Ikastolen Elkartek hainbat egitasmo diseinatu eta jarri ditu martxan eremu horietan. Ikastolen Hizkuntza Proiektuak egitasmo bakoitza dagokion esku-hartze eremuan kokatzeko markoa eskaintzen du; beraz, aukera ematen du egoera linguistikoaren diagnosi osoa eta plangintza linguistiko orekatua, koordinatua eta koherentea egiteko, bai eta plangintza horren eraginaren jarraipena egiteko eta eragina ebaluatzeko ere<sup>2</sup>. Ondorengo ataletan, Ikastolen Elkartek esku-hartze eremu pedagogikoan eta instituzionalean ikasleek duen kompetentzia eleaniztuna garatzeko –hizkuntza gutxituaren garapena arriskuan jarri gabe– martxan jarritako proiektu nagusiak deskribatuko ditugu.

---

2. Adierazitako diagnosi, plangintza eta ebaluazio tresnak 2002an abiaraziriko esperientzia pilotu batean garatu eta probatu dira. Esperientzia pilotu horretan oinarrituz, 2009an "Ikastolen Hizkuntz Proiektua" izeneko liburua argitaratu zen.

## 4. EREMU PEDAGOGIKOA

### 4.1. Hizkuntzen irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako Hizkuntzen Curriculum Bateratua

Norberak bereganatzen dituen hizkuntzak ez dira banan-banan garatzen, baizik eta modu integratuan. Sakonean, guztiok dugu hizkuntza gaitasun bera, eta horri esker gara gai, hizkuntzak erkatzeko eta horien arteko aldeak bereizteko, bai eta hizkuntzen arteko elkarreragin etengabea kudeatzeko ere (Cummins, 1979). Gaitasun komun hori behar bezala sustatzea funtsezkoa da, baldin eta konpetentzia eleaniztun orekatu eta integratua eratu nahi badugu. Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoak honela adierazten du hori (Europako Kontseilua, 2001):

Ikuspegi horretan, hizkuntzak ikastearen xedea guztiz aldatzen da. Helburua ez da bizpahiru hizkuntza bakoitza bere aldetik ikatea, jatorrizko hitzunek emandako ereduari jarraiki. Aitzitik, helburua oinarrizko errepertorio linguistikoa garatzea da, eta errepertorio horretan hizkuntza trebetasun guztiak adierazi ahal izatea (5. or.).

Alde horretatik, eta Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoan adierazitakoari jarraiki, Ikastolen Elkarrekin curriculum proposamen bakarrean biltzen ditu euskararen, euskal lurralde bakoitzari dagokion ukipen hizkuntzaren eta nazioartean erabilitako hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza. Horretarako, *curriculum bateratua* diseinatu da, eta horrek ikasi beharreko hizkuntza guztiak bere baitan hartzen ditu. Horrela, ikaskuntza prozesuko alderdi osagarriak batzea lortzen da, eta,aldi berean, hizkuntza bakoitzaren alderdi linguistikoko zehatzak alderatzea. Halaber, hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntzetara transferitu, aplikatu eta orokortzen da. Hizkuntzarekiko ikuspegi diskurtsiboan oinarritzen garena kontuan hartuta, (edozein) hizkuntza komunikatzeko, eza-gutza eratzeko eta esperientzia adierazteko nola erabili izango da curriculum honetako edukien eta hautatutako metodologia proposamenaren oinarria. Ondorioz, edukiak genero guztietako testuak izango dira, komunikazio egoera guztietako gizarte erabilerak adierazten dituztenak. Bestetik, hizkuntzaren sistema ikasteko (testuinguruaren, testuaren, perpausen edo hitzen mailan), testu horiei buruzko hausnarketatik abiatuko da.

#### 4.1.1. Hizkuntz curriculum bateraturako markoa


Ikuspegi integratu horren baitan, garatu beharreko konpetentzia orokorren<sup>3</sup> definizioa, landu beharreko eduki multzoak, eta oinarrizko edukien hautaketarako irizpideak berdinak dira curriculumeko hizkuntza guztietarako, esparru horien guztien garapen osagarria bermatuz. Hizkuntza bakoitzaren lorpen-mailak

---

3. Konpetentzia orokorra: "Ezagutzen, trebetasunen eta jarreraren multzoa; ezinbestekoa da norbanakoek gizarteko arlo anitzetan eraginkortasunez parte hartzeko, bai eta lagungarria ere, pertsonen bizitzan arrakasta orokorra izateko eta gizarteak ondo funtzionatzeko" (ELGE, 2002).



## 2. irudia. Hizkuntz curriculum bateratua



konpetentzia espezifiko<sup>4</sup> bidez zehaztuko dira, eta, batik bat, ebaluazio irizpideen definizioetan adieraziko dira, betiere deskribapen komun batean oinarrituta.

Hizkuntzen lorpen-mailen sailkapena proposatzeko, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoari (Europako Kontseilua, 2001) jarraitu diogu. Derrigorrezko hezkuntza bukatzen denerako, ikasleek erabiltzaile autonomoaren maila gorena lortu behar lukete euskaran eta ukipen hizkuntzan (gaztelania edo frantsesa); hau da, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoko B2+ maila. Hirugarren hizkuntzan, berriz, erabiltzaile autonomoaren maila eskatuko zaie, baina aurrekoa baino baxuagoa: B1+ maila, hain zuzen. Azkenik, Euskal Herriko beste ukipen hizkuntza ofizialean, A2 maila, oinarritzko erabiltzailearena, eskatuko zaio ikasleari (ikus 2. irudia). Curriculum bateratu hori gauzatzeko, Ikastolen Elkarteak lau hizkuntzetarako eta eskolatzeko maila guztietarako sortutako material didaktikoak erabiltzen ari da<sup>5</sup>.

4. Konpetentzia espezifikoa: arlo bateko konpetentzia orokorrak zehatzago deskribatzen dituen konpetentzia da. Landu behar diren ikaskuntza helburuak zehazten dira, eta konpetentzia orokor jakin batean lortu den mailaren adierazle dira.

5. Ikusi on-line katalogoa [www.ikastola.net](http://www.ikastola.net) webgunean.

#### 4.1.2. Hizkuntzen irakaskuntzarako ordutegia

Egitasmo eleaniztun horretarako egin behar den plangintzan, euskal eremuan hizkuntza bakoitzaren gizarte eta kultura egoera hartzen dira kontuan. Egitasmoan, euskara hartu da hizkuntza nagusitzat eskola ikaskuntzarako eta komunikaziorako, eta gainerako hizkuntzek izango dituzten zereginak finkatzeko zenbait faktore (estatusa, tokiko ingurunean zer-nolako presentzia duten, hizkuntzen arteko distantzia linguistikoa) eta hezkuntza-prozesuen maila bakoitzean ikasleek dituzten ezaugarri kognitibo eta psikologikoak hartu dira kontuan. Faktore horiek zenbait erabakiren oinarrian daude; esate baterako, ingelesa goiz eta gaztelania baino lehenago irakasten hastearena edota frantsesa irakasteko ordu gutxi ematearena. Azken horri dagokionez, denbora hori nahikoa dela uste da, zehaztutako lorpen maila lortzeko, baldin eta honako hauek baliatzen badira: jada hiru hizkuntzatan garaturiko kontzientzia metalinguistikoa, ikasle helduagoen trebetasun kognitiboak, gaztelaniarekiko hurbiltasun linguistikoa eta frantses hitzuneekin harremana izateko aukera. Proposatutako ordutegia 3. irudian ikus daiteke.

#### 4.1.3. Euskara eta ingelesa: Eleanitz-English proiektuaren ondorioak

Artikulu honen sarreran adierazi den bezala, 1991n Ikastolen Elkarteak Eleanitz-English proiektua jarri zuen martxan, ikasleen ingelesezko komunikazio konpetentzia hobetzeko asmoz. Proiektuak bere baitan hartzen zituen derrigorrezko hezkuntzan ingelesa irakasteko alderdi guztiak: materialak idaztea, irakasleentzako prestakuntza, jarraipena eta ebaluazioa. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) urtero ebaluatu zituen proiektuaren fase esperimentalak (1991-2003).

Ebaluazioaren helburua ez zen soilik ikasleek ingelesez lortutako komunikazio-konpetentzia neurtzea; horrez gain, honakoak ere ebaluatu nahi ziren: L3 hizkuntza hain ikasle gazteei (4 urterekin) irakasten hasteak izan zezakeen eragina, bai ikasleen euskarazko eta gaztelaniazko komunikazio-konpetentzian bai eta ikasleen gaitasun kognitibo orokorretan ere. Helburu horiek kontuan hartuta, ebaluazio programa bat diseinatu zen, 10 urteko epean ikasleek hizkuntza bakoitzean zuten konpetentzia neurtu ahal izateko<sup>6</sup>. 4. irudiak adierazten duenez, ingelesa goiz ikasten hasteak ez zuen inolako kalterik eragin ikasleen euskarazko eta gaztelaniazko komunikazio-konpetentzian, ezta gaitasun kognitiboan ere, bi ikasle multzoek oso antzeko emaitzak lortu zituzten-eta.


---

6. Eleanitz-English taldeko ikastolen antzeko zenbait ikastolek osaturiko taldea hartu zen kontrol taldetzat. Ikastola horietan, ordea, 8 urterekin hasi ziren ingelesa ikasten, testu-liburu arruntak erabiliz. Eleanitz-English taldea 8 ikastolek osatzen dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Arzamendi, J. et al. (2003).

### 3. irudia. Hizkuntzen irakaskuntzarako ordutegia eta hasierako adina


MAILA		ADINA	EUSKARA	CASTELLANO	ENGLISH	FRANÇAIS
HH	1	3-4	X*			
	2	4-5	X*		X (2.5 h.)	
	3	5-6	X*		X (2.5 h.)	
LH	1	6-7	X*	X*	X (3h.)	
	2	7-8	X*	X*	X (3h.)	
	3	8-9	X*	X (3 h.)	X (3 h.)	
	4	9-10	X*	X (3 h.)	X (3 h.)	
	5	10-11	X*	X (3 h.)	X (3 h.)	
	6	11-12	X*	X (3 h.)	X (3 h.)	
DBH	1	12-13	X (3 h.)	X (3 h.)	X (4 h.)	X (2 h.)
	2	13-14	X (3 h.)	X (3 h.)	X (4 h.)	X (2 h.)
	3	14-15	X (3 h.)	X (3 h.)	X (5 h.)	X (2 h.)
	4	15-16	X (3 h.)	X (3 h.)	X (5 h.)	X (2 h.)
<b>Hizkuntza bakoitzak duen denbora %</b>			<b>Euskara(z): 75,72%</b>	<b>8,86%</b>	<b>12,12%</b>	<b>3,80%</b>
<p>X* Globalizatua.</p> <p>X* Gaztelaniaren sarrera, batez ere hizkuntza nagusi gisa euskara duten haurrentzat (bai familian, bai inguruko gizaratean).</p>						

### 4. irudia. Euskara, Gaztelania eta gaitasun kognitiboari buruzko emaitzak



5. irudian, berriz, ingelesa 4 urterekin ikasten hasi ziren ikasleek, 8 urterekin hasi ziren mailakideek baino emaitza hobekak lortu zituztela ikusi daiteke.

### 5. irudia. Ingelesari dagozkion emaitzak



Eleanitz-English proiektuaren ebaluazioak, beraz, bi emaitza garrantzitsu eman ditu: batetik, ikasleen ingeles mailaren hobekuntza ekarri duela; eta bestetik, ingelesaren ezartze goiztiarrak beste hizkuntzen garapen egokirako oztopo ez dela, euskararen garapenerako bereziki.

### 4.2. Hizkuntza, curriculumeko arlo guztietan

Orain arte arrazoitu dugun bezala, hizkuntza bat irakasgai gisa irakastea ez da nahikoa komunikazio konpetentzia orokorra sakon garatzeko, eta hori bereziki egia da hizkuntza gutxituen kasuan. Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu osoko alderdi linguistikoak funtsezkoak dira garapen horretarako, eta, alde horretatik, irakasgai guztietako irakasleek hizkuntza irakatsi behar dute. Batetik, ikasgelan sortzen diren komunikazio-egoerak hizkuntza hobetze aldera antolatu behar dira, hizkuntza ekoizpena sendotzeko eta garatzeko izan daitezkeen aukerak ahalik ongien aprobetxatzeko. Bestetik, irakasgai bakoitzean, testu genero eta hizkuntza trebetasun jakin batzuk lantzen dira, eta, ikasgaiaren curriculumean garrantzitsuak direnez, testu mota eta hizkuntza trebetasun horiek argi eta garbi irakatsi eta integratu behar dira, ez bakarrik hizkuntza irakasteko, baita irakasgai bera irakasteko ere, hizkuntza da-eta irakasgaiko edukiak eskuratzeko tresna nagusia.

Esku-hartze eremu horretako ekimenak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako proposamen pedagogikoetan, proiektu globalizatuen bidez gau-

zatzen dira eta haietan ikaskuntza jarduera guztiak hizkuntzaren aldetik aztertu eta diseinatzen dira. Beraz, hizkuntza trebetasun akademiko-kognitibo guztiak eta haiei dagozkien testu generoak ikaskuntza helburutzat hartzen dira, irakasgaiaren helburu zehatzekin batera. 6. irudian, Ingurumena irakasgaiko edukien plangintza globalizatuaren adibidea adierazten da, non prozedura linguistiko-akademikoak hizkuntzako irakasgaiaren nahiz Ingurumena irakasgaiaren edukitzat hartzen baitira. Bigarren Hezkuntzan, Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratuaren (*CLIL Content Language Integrated Learning*) ikuspegi erabili da nazioarteko hizkuntzak irakasteko, eta gai horri buruzko ikerketa lanen emaitzak euskararen bidezko irakaskuntzara heldu dira, geroago azalduko dugun moduan.

**6. irudia. Plangintza globalizatua: eremu akademikoari dagozkion prozedura linguistiko eta kognitibo komunak<sup>7</sup>**

HIZKUNTZA			INGURUNEA	
	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK
<b>1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA</b>	<b>Talde elkarrizketa</b> Bozeramalea Elkarrizketa-arauak	<b>Talde elkarrizketa</b> -Jarraibideak errespetatuz hitz egin (galdetegia) -Laburpena (bozeramalea) -Arauak jarraitu -Parte hartzaileak behatu eta ebaluatu		- <i>Emigrazioa</i> - <i>Giza eskubide unibertsalak</i>
	<b>Iritzia adierazteko egiturak:</b> Nire ustez, nire iritzi, ...	<b>Iritziak adierazi eta justifikatu</b>		- <b>Munduaren populazioa</b> - <b>Bizi-itzaropena</b> - <b>Aberastasunaren banaketa desorekatua</b>
	<b>Ahozko azalpena. Eskema</b>	<b>Ahozko azalpena</b> -Planifikazioa - arretaz entzun/irakurri - hautazko irakurketa - hizkuntza idatziaren laguntza: eskemak - memorizatu - Ahozko azalpena egin		- <b>Paraleloak eta meridioak</b>

7. Ikastolen Elkartearen *Txanela* proiektu globalizatutik ateratako adibidea, Iñaki Lasa, Hizkuntza arduradunak garatua.

HIZKUNTZA			INGURUNEA	
	KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	PROZEDURAK	KONTZEPTUAK
<b>2. KOUNIKAZIO IDATZIA</b>	<b>Antolatzaile grafikoak</b> -ezaugarriak: osagaiak -motak: kontzeptu-mapak, eskemak, jarraibideak ...	<b>Antolatzaile grafikoen bidez informazioa sintetizatu</b> Irakurketa erreflexibo gidatua -ereduak aztertu -testu baten gaia, azpi-gaiak, ideia nagusiak, eta xehetasunak berezi -ideien arteko erlazioak aurkitu Erlazioak grafikoen bidez adierazi		– Elikagai motak Karbohidratoak, proteinak, bitaminak, mineralak ... – Liseriketa: ahoa, urdaila eta hesteak – Organo nagusiak.

#### 4.2.1. Hizkuntza, curriculumeko arlo guztietan: SSLIC proiektuaren ondorioak (gizarte zientzien eta hizkuntzaren curriculum integratua)

2001ean, Ikastolen Elkartek Eleanitz-English proiektuaren azken fasea martxan jartzen hasi zen: 14 urtetik 16 urtera bitarteko ikasle guztiei gizarte-zientziak ingelesez irakastea<sup>8</sup>. Ikasturtearen amaieran, ikasle horiek gizarte zientzietan lortutako ezagutza ebaluatu zen. Ebaluazio horren emaitzak alde-eratzeko, gizarte zientziak euskaraz ikasitako ikasleen talde bati (kontrol taldea) azterketa bera eginarazi zitzaion. Ingelesa irakaskuntza bitartekotzat erabiltzeak euskarazko konpetentziaren garapenean zer-nolako eragina izan zezakeen ebaluatze aldera, azterketa euskaraz egin zen, nahiz eta jakin erabaki horrek irakasgaia ingelesez ikasi zutenen errendimendua muga zezakeela.

Azterketak bi atal zituen:


- Galdera sorta bat gizarte zientzietako oinarrizko kontzeptuak ulertu eta bereganatu zituzten ebaluatzeko. Galdera horietan, ikasleek ez zuten luze edo sakon erantzun beharrik.
- Beste galdera sorta bat, ikasleen adierazpen trebetasuna ebaluatzeko; hau da, ebaluatzeko ea gai ziren ikasturtean zehar irakasgaietan landutako alorreko buruz azalpenak emateko, beren hitzak eta gizarte zientzietako terminologia eta kontzeptuak erabiliz. Galdera horietan, sakonago erantzun behar zuten irakasleek, aurrekoetan baino.

7. irudiak adierazten duenez, gizarte zientziak ingelesez ikasi zutenek, oinarrizko edukiak bereganatu ez ezik (ikus “oinarrizkoa” zutabea), emaitza hobekien ere lortu zituzten galdera sorta konplexuenetan (ikus “goi-maila” zutabea). Halaber, emaitzek adierazi zuten ikasle horiek ingelesez ikasitako edukiak eus-

8. SSLIC-en deskribapen zehatza nahi izanez gero, ikus Muñoa, I. (2003), Ball, P.; Beobide, H.; Muñoa, I. (2004).

karaz adierazteko gai zirela, eta horrek, zeharka bada ere, adierazten du ez zela kalterik gertatu ikasleen euskarazko komunikazio-kompetentzian.

#### 7. irudia. Gizarte Zientziak: ebaluazio-emaizak



#### 4.2.2. Euskaran ardaztutako eleaniztasuna: ondorioak

Ikastoletan abian dugun Eleanitz-English egitasmoaren ebaluazioak ondorio interesgarriak ekarri ditu. Ondorio horiek atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren esparrutik haragokoak dira eta eragin handia izan dezakete hizkuntza gutxituen irakaskuntzan eta hizkuntza horiek irakaskuntzako tresna gisa erabiltzeko garaian.

Lehenik, emaitzek adierazten dute curriculum eleaniztuna martxan jartzeak ez duela zertan mugatu ikasleek hizkuntza gutxituan lortzen duten kompetentzia, ez baitago ageriko alderik Eleanitz-English proiektuko ikasleen eta kontrol taldeko ikasleen euskara mailan. Are gehiago, badirudi Bigarren Hezkuntzako azken bi mailetan ingelesa gizarte zientziak irakasteko tresnatzat erabili arren, ikasleak gai direla euskaraz gizarte-gaiekin lotutako kontzeptuak adierazteko. Ikastolek lortutako emaitzak bat datoz Cenzok (1998) eta Lasagabasterrek (2008), besteak beste, euren ikerketetan aipatzen dituztenekin. Ikerlari horiek ere azpimarratu dute ikasleen euskarazko komunikazio-kompetentziak ez duela kalterik jasaten ingelesaren ezartze goiztiarraren edo ingelesaren bidez eskolako arloak lantzearen ondorioz.

Bigarrenik, gizarte zientziak ingelesez landu zuten ikasleek euskaraz eduki berberak landu zituztenek baino emaitza hobekak lortu izanak aditzera ematen duenez, irakasgaien edukiak eta hizkuntza integratzea mesedegarria izan daiteke. Hainbat ikerketaren argitan, eskolako arloak bigarren edo hirugarren

hizkuntza baten bidez lantzeak onura kognitiboak izan ditzakeela badirudi ere (Baetens Beardmore, 2008), gure ustetan, emaitza horien eragile nagusiak irakaskuntza-mota horretan erabilitako metodologia, jarduera-motak eta ikasgelako elkarreaginaren estiloa izango lirateke.

Hartara, euskaren bidezko irakaskuntzan ere edukia eta hizkuntza integratzea onuragarria izan daiteke bai euskararen ikaskuntzarako, bai eskolako arloan ikaskuntzarako. Ez dugu ahaztu behar, gure egoera soziolinguistikoa euskara bigarren hizkuntza dela ikasle askorentzat. Maiz askotan, irakasleok eta material didaktikoen egileok faktore hori ahaztu egiten dugu, batik bat Bigarren Hezkuntzan, eta euskara ikasleen lehenengo hizkuntza balitz bezala jarduteko joera izan ohi dugu, baita ikasle batzuen komunikazio konpetentzia maila horretara heltzen ez bada ere.

Bestalde, uste dugu edukia eta hizkuntza bateratzea onuragarria izango dela euskara lehen hizkuntzatzat duten ikasleentzat, hizkuntza akademikoak oso ezaugarri zehatzak baititu. Hizkuntza mota jakin horren eraginpean izateko aukera nahiko mugatua izaten da eskolatik kanpo, are gehiago hizkuntza gutxituetan, egoera soziolinguistikoak xede hizkuntzaren eragina eskola girora mugatzen baitu batzuetan.

Kasu bietan, irakasgaia irakasten duen irakaslearen eginkizuna funtsezkoa da ikasleen komunikazio konpetentzia garatzeko. Ikastolen Elkarrekin proposaturiko curriculumaren diseinuaren baitan, hizkuntza akademikoa euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza curriculumaren zati bat da, eta eduki linguistiko horiek identifikatu eta landu behar direla adierazten da, beste irakasgai iralagaitarako beharrezkoa dela uste baita. Hala eta guztiz ere, ohartzen gara hizkuntza-irakasleen ahaleginak mugatuak izango direla, baldin eta gainerako irakasgaietako irakasleek hizkuntza- irakasleen lana osatzen ez badute eta beren irakasgaietan arrakasta izateko behar diren eduki eta trebetasun linguistikoetan arretarik jartzen ez badute. Hori dela-eta, eta Eleanitz-English egitasmoaren emaitzetan oinarrituz, Gizarte Zientziak ingelesez irakasteko jarduera motak, metodologia eta ikasgelako elkarreaginerako ereduak egokitu eta Gizarte Zientzietako euskarazko ikasmaterial berrietan txertatu dira.

#### **4.3. Gelaz kanpoko eremua**

Aurreko ataletan ikusi dugu hizkuntz curriculum eleaniztuna abian jartzeak ez duela zertan kalterik eragin hizkuntza gutxituak ikasteko, bai eta L2 eta L3 hizkuntzen irakaskuntzako esperientziak erabil daitezkeela ere, hizkuntza gutxituaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak hobetzeko. Hizkuntza ordezkapena iraultzeko (RLS, ingelesez) itxaropena duen eskolaren ikuspuntutik, halere, hizkuntza gutxituan kalitatezko hezkuntza eskaintzea ez da nahikoa. Fishman-en esanetan, RSL-a lortzeko hizkuntza ikaskuntzak

[...] ez du arrakasta izango, baldin eta hizkuntza gutxituak bere gizartearen funtzionatzen ez badu, eskola hasi baino lehen, eskolatik kanpo, eskola urteetan eta geroago, eskolazte ofiziala bukatu ondoren (Fishman, 2001; 470-1).



Ikastolen Elkarteak antzeko ondorioak atera zituenez, “Euskaraz Bizi” proiektua abiarazi zuen 1980an, ikasgelatik kanpo euskara erabiltzeko egoerak sortzeko eta identifikatzeko, ikasleek aukera izan zezaten komunikazio egoera errealetan euskaraz jarduteko. Egun, proiektu hori ikastolen Hizkuntza Proiektuaren marko globalaren baitan dagoenez, ikastetxeek hori erabil dezakete, lotura egokiak sortzeko ikastolako hizkuntza ikaskuntza-erabileraren eta eskolatik kanpoko gizartearen artean.

Lotura horien ondorioz, gelaz kanpoko eremua oso garrantzitsua bilakatu da, ez bakarrik hizkuntza gutxituarentzat gizarte-espazioak zehaztu eta bermatu beharko lituzkeelako, baizik eta hizkuntza ikasteko ingurune gisa erabili behar delako ikasleek naturaltasunez beregana ditzaten eskolan osorik edo erabat irakatsi ezin diren hizkuntza erregistroak; besteak beste, hizkuntza gutxituaren erregistro informalenak eta lagunarteko hizkera, eta eskolatik kanpoko jarduerekin (kirolak, arteak...) lotutako erregistro zehatzak. Horrek berebiziko garrantzia izango du hizkuntza gutxitua eskolatik kanpo gutxi erabiltzen den ingurunetan, horrelako ingurunetan ez baita hizkuntza hori transmititzen etxean, familiarrean eta auzoan.

Ikastolen kasuan, ikuspegi horrek nolabait argitu du hezkuntza euskaraz jaso duten ikasleek zergatik ez duten hizkuntza hori erabiltzen eguneroko bizitzan, ezta euskararen presentzia bermaturik dagoen egoeretan ere. Beste era batera esanda: Zergatik ez da nahikoa euskaraz mintzatzen diren entrenatzaileak izatea, kirol jardueretan euskara hizkuntza nagusia dela bermatzeko? Jarduera horiek hizkuntza ikasteko egoeratzat hartzeak aukera eman du lan ildo gehigarri eta osagarriak abiarazteko, motibazioa eta jarrerak hobetzeko helburua duten ohiko kanpainak abiarazteaz gain.

Honenbestez, gelaz kanpoko eremuan ere euskara helburu nagusia bada, esparru pedagogikoa izateaz gainera, didaktikoa ere badela azpimarratu beharra dago. Gelaz kanpoko eremuaren xede nagusia euskararentzat espazioa irabaztea den momentutik, eta lan horrek etekinak izatea nahi bada, berezko planteamendu didaktikoa beharko du, oraindik ere garabidean dagoena. Alegia, ekintza bakoitzak bere programazioa beharko du, bere sekuentziazioa; helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa beharko ditu, bai eta horiek aurrera eramateko egitura ere. Planteamendu didaktiko hori garatu beharko da esku-hartze eremu guztien arteko koherentzia zainduz, eta irizpide metodologiko orokorretan eta profesionalen prestakuntzan bat eginez.

Ikuspegi horrek, aukera eman dio Ikastolen Elkarteari ekintza plan zehatzak diseinatzeko. Plan horietan kontuan hartzen dira ikasleek eta entrenatzaileek jarduera horiekin lotutako hizkuntza erregistroak zenbateraino menderatzen dituzten, bai eta entrenatzaileek zer-nolako estrategiak garatu behar dituzten ere, ikasleei laguntzeko (edo are irakasteko) egoera informal horietan euskaraz komunikatzeko.

Halaber, ikuspegi horretan, koordinazio estua egon behar du ikasleen aisialdian parte hartzen duten erakundeekin; izan ere, ikastolak, jarduera horiek euskaraz egiten direla bermatzeaz gain, jarduera horietan ikasleek arduratzen diren

helduen prestakuntzaren jarraipena egin beharko du. Koordinazio estua behar da ikastoletan bertan ere, eskola orduak jada ez dira-eta hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko testuinguru bakarra. Beraz, ikastolek erabaki koordinatuak hartu behar dituzte eta zehaztu egin beharko dute zein hizkuntza eduki landuko diren curriculum ofizialean eta zein curriculumentik kanpoko jardueretan.

## **5. EREMU INSTITUZIONALA**

Hizkuntza ordezkapena iraultzearekin lotutako eskola orok zenbait erabaki hartu beharko lituzke esparru instituzionalean. Erabaki horiek ikaslearen euskararen erabilera berehala eragingo ez badute ere, garrantzitsuak izango dira, bai ikasleen gizarte ingurunea ahalik euskaldunena izan dadin ziurtatzeko, bai hizkuntza erabiltzeko aukerak areagotzeko. Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren eremu honetan, honako ataletan jartzen da arreta: Batetik, paisaia linguistikoa (seinaleak, posterrak, iragarkiak, eta abar) nahiz eskolako dokumentazioan, artxiboetan, arauetan, bileretan eta abarretan. Arlo horietan zer hizkuntza erabiliko den zehazten da, eta hartutako erabakiak martxan jarri. Bestetik, euskara hezkuntza komunitatean eta hezkuntza komunitatetik kanpo erabiltzeko zailtasunak (ikasleenak, irakasleenak, familienak...) identifikatzen dira, eta oztopo horiek gainditzeko bitartekoak antolatu eta eskura jarri. Laburbilduz, ikastolak, erakunde gisa, hizkuntza erabilera erreferentzia izateaz gain, hizkuntzaren erabilera gizartean babestu eta sustatzearen helburua ere bere gain hartzen du. Horrela bakarrik bermatuko dugu eskolan eginiko lana kanpoko testuinguru zabalean ez dela desagertuko.

## **6. ONDORIOAK**

Ikastolen helburu nagusiak dira kalitate oneko euskal hezkuntza garatzea, eta euskara eta euskal kultura suspertzea eta sustatzea. Baina, inguruko hizkuntza nagusiarekin eta/edo nazioarteko “lingua franca”rekin lehian jardunez gero, ez dago helburu horiek lortzerik gaur egungo munduan. Aitzitik, hizkuntza plangintzan ikuspegi zabalagoa, malguagoa eta inklusiboagoa erabili behar dugu. Euskara gure komunitatearen hizkuntza nagusia izan behar duela abiapuntu hartuta, konpetentzia eleaniztun berri bat garatzeko eragile osagarritzat hartu behar ditugu hizkuntzak. Lortuko den konpetentzia eleaniztun horrek aukera emango die etorkizuneko belaunaldietako euskal herritarrei beren komunikazio premien arabera hizkuntza-hautuak egiten, beren ama hizkuntzari eusteko konpromiso sendoa izateari uko egin gabe.

Hezkuntza eleaniztunaren ereduak gure eskola sistemari dakarkion erronka handiari aurre egiteko, nahitaezkoa da hizkuntza politikak diseinatzean eskola ingurunean izan daitezkeen komunikazio eremu guztiak tentu handiz kontuan hartzea, bai eta eskola komunitate osoaren ahaleginak elkartzea ere. Ikastolen hizkuntza proiektua urrats garrantzitsua da politika hori osatzeko, eta, gainera, lortzen ari diren emaitzek politika hori eraginkorra dela frogatu dute.

## BIBLIOGRAFIA

- ALDASORO, M.; et al. *Ikastolen Hizkuntz Proiektua definitzen*. Barne-txostena, 2002.
- ARZAMENDI, J.; BALL, P.; GARAGORRI, X.; ELORZA, I.; ETXEBERRIA, J. "A los 10 años de evaluación de la experiencia "Eleanitz-inglés"". In: HUETE, C; MORALES, V. (eds.) *Enseñanza-Aprendizaje de las Lenguas Extranjeras en Edades Tempranas*. Murcia: Consejería de Educación y Cultura, 2003; 143-74.
- ASKOREN ARTEAN. *Derrigorrezko Eskolaldirako Ikastolen Oinarrizko Curriculum Komuna. Baloratze eta hobetzeko proposamena*. Donostia: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2008.
- ASKOREN ARTEAN. *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Donostia: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009.
- BAETENS BEARDSMORE, Hugo. "Multilingualism, Cognition and Creativity". In: *International CLIL Research Journal*, 1/1. 2008; 4-19.
- BALL, P.; BEOBIDE, H.; MUÑOA, I. "Cómo enseñar las ciencias sociales en inglés". In: *Cap al Plurilingüisme des de l'Ensenyament-Aprenentatge de la Segona Llengua- III Jornades Institut Europeu de Programes d'Immersion*. Barcelona: IEPI, 2004.
- BRONCKART, J. P. *Las Ciencias del Lenguaje: ¿Un desafío para la Enseñanza?* Lausana: UNESCO, 1985.
- . *Activité Langagière, Textes et Discours. Pour un Intéractionisme Socio-Discursif*. Paris: Delachaux et Niestlé, 1997.
- BRUNER, J. S. *Child's Talk. Learning to Use Language*. New York: Norton, 1983.
- . *Acción, Pensamiento y Lenguaje*. Madrid: Alianza, 1984.
- . *El Habla del Niño: Aprendiendo a Usar el Lenguaje*. Barcelona: Paidós, 1986.
- CANALE, M. "From communicative competence to communicative language pedagogy". In: RICHARDS, J. C.; SCHMIDT, R. (eds.). *Language and Communication*. Londres: Longman, 1983.
- CENOZ, Jasone. "Multilingual education in the Basque Country". In: CENOZ, Jasone; GENESEE, Fred (eds.). *Beyond bilingualism: multilingualism and multilingual education*. Clevedon: Multilingual Matters, 1998; 175-191.
- CUMMINS, J. "Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües". In: *Infancia y Aprendizaje*, 21, 1979; 37-61.
- . "Bilingual Children's Mother Tongue: Why is it important for education?" In: <http://www.iteachilearn.com/cummins/index.htm> (2008-10).
- DIJK, T. A. van. "Discourse Studies and Education". *Applied Linguistics* 2, 1981; 1-26.
- ELGE. "DeSeCo Strategy Paper. Definition and Selection of Competences: Theoretical and conceptual foundations", 2002. In: <http://www.portal-stat.admin.ch/deseco/index.htm> (06-2005).
- ELORZA, I.; MUÑOA, I. "Promoting the minority language through integrated plurilingual language planning: the case of the ikastolas". In: CENOZ, J. (ed.). *Teaching through Basque. Achievements and Challenges*. Multilingual Matters 2008.
- ETXEZARRETA, J. I. "Egindakoari eutsi eta egiten segi". In: *Euskara*, 21. Oinarrizko Txostenari Ekarpena. Euskararen Aholku Batzordea. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2008.

- EUROPAKO KONTSEILUA. *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Cambridge: Cambridge University Press, 2001.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN ELKARTEA. *Euskal Eskola*. Donostia: Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, 1991.
- FISHMAN, J. *Can Threatened Languages Be Saved? Reversing Language Shift Revisited: a 21<sup>st</sup> Century Perspective*. Clevedon, UK: Multilingual Matters, 2001.
- GARAGORRI, X. 'Haurtxoa' proiektua. *Haur hezkuntzako bigarren zikloko berrikuntza proiektu baten ebaluazioa*. Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1995.
- . (zuz.); et al. *Euskal Curriculum*. *Kultur Ibilbidea*. Donostia: Ikastolen Konfederazioa, 2004.
- GENESE, F. (ed.). *Educating Second Language Children. The Whole Child, the Whole Curriculum, the Whole Community*. Cambridge: Cambridge University Press, 1994.
- GOROSTIDI, J. L. *Euskaraz Bizi*. Iruña: Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, 1991.
- GRADDOL, D. *English Next*. Londres: British Council, 2006.
- HERDINA, P.; JESSNER, U. *A Dynamic Model of Multilingualism: Perspectives of Change in Psycholinguistics*. Clevedon, UK: Multilingual Matters, 2002.
- JONNAERT, P.; VANDER BORGHT, C. *Créer des conditions d'apprentissage: Un cadre de référence socioconstructiviste pour une formation didactique des enseignants*. Paris/Bruxelles: De Boeck & Larcier, 1999.
- LASAGABASTER, David. "Hirueletasuna eskolan: ingelesaren lekua euskal hezkuntza sisteman", 2008. In: <<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net>> (2009-12).
- MACKEY, W. F. "The description of bilingualism". In: *Canadian Journal of Linguistics* 7, 1962; 51-85
- MUÑOA, I. "Eleanitz-English: Gizarte Zientziak ingelesez". In: *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 49. Donostia: SEI, 2003; 79-97.
- OSA, E. "Erabilera indartzeko egungo bideak eta gerora begirako gogoetak". In: *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 53. Donostia: Soziolinguistika Klusterra, 2004.
- PIAGET, J. *La Construction du Réel Chez l'Enfant*. Paris: Delachaux et Niestlé, 1937.
- . *La Formation du Symbole Chez l'Enfant: Imitation, Jeu et Rêve, Image et Représentation*. Paris: Delachaux et Niestlé, 1945.
- . *L'Épistémologie Génétique*. Paris: Presses Universitaires de France, 1970.
- ; INHELDER, B. *La psychologie de l'enfant*. Paris : Presses Universitaires de France (6. edizioa), 1975.
- RUIZ BIKANDI, U.; BERNAL, M. "Hacia una cultura multilingüe de la educación". In: *Textos, 023*. Barcelona: Graó, 2003.
- SAENZ, M.; et al. (2006-2009). *Txanela Proiektua*. (Lehen Hezkuntzarako ikasmaterialeen bilduma). Donostia, Ikastolen Elkartea eta Elkarlanean.
- VIGOTSKY, L. *Pensamiento y lenguaje. Teoría del desarrollo cultural de las funciones psíquicas*. Buenos Aires: La Pléyade, 1973.